

## ONARRIAK

### PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- 16 eta 29 urte bitartekoa izatea.
- Erandion errolatua egotea edo udalerriarekin lotura akademikoa izatea.
- Erandioko Udaleko langileen edota lehiaketa abiarazteko kontratatutako duen enpresako edo enpresetako langileen ezkontidea, ondorengoa edo ahaidea ez izatea (2. mailara arteko odolkidetasun edo ahaidetasuna, 2. maila barne).

### HELBURUAK

- Ekintzailatza-grina eta ekimen berritzaileak piztea, aukerak eskainiko dituen etorkizuna bultzatzeko.
- Talentua, talde-lana eta lan eta esfortzu pertsonala sustatzea.
- Prestakuntzak enpresa edo zerbitzu berriak sortzeko duen garrantzia azpimarratzea.
- Lan bila dauden pertsonen ahalduntzeko tresnak eskaintzea.
- Ikasketak amaitu dituzten pertsonen ekintzaile izateko gaitasunak ematea.

### IZENA EMATEA ETA PROZESUA

Lehiaketan izena emateko, bete inprimakia Erandioko Behargintzan edo honako helbide honetan: [bit.ly/Aktibatuzureideiak2020](http://bit.ly/Aktibatuzureideiak2020)

Izena emateko epea 2020ko maiatzaren 1etik 2020ko irailaren 30era arte izango da.

Behin izena emanda, parte-hartzaileek informazio- eta prestakuntza-saio batzuk jasotzeko aukera izango dute, proiektuaren sorrera eta aurkezpena hobetzeko.

Proiektua 2020ko urrian entregatuko da.

Proiektuak posta elektronikoko bidez entregatuko dira [udalgaztediplana@erandio.eus](mailto:udalgaztediplana@erandio.eus) helbidean edo Erandioko Behargintzan, gutun-azal itxian, eta "Aktibatu Zure Ideiak 2020" eta parte-hartze zenbakia adierazita.

### PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Proiektua edozein euskarritan aurkez daiteke, betiere honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Paperean: 5 orri, alde batetik idatzita
- Bideoa: 3 minutu
- Aurkezpena: 5 minutu

### NOLA BALORATUKO DIRA PROIEKTUAK?

Proiektu bakoitzak sari bakar bat jaso dezake, proiektua egin duen pertsona-kopurua edozein delarik ere.

Epaimahaiak 0 eta 10 arteko puntuazioa emango dio proiektu bakoitzari, honako irizpideak kontuan hartuta:

- Baliagarritasuna: konpontzen duen arazoaren tamaina eta hartzaile potentzialen kopurua kontuan hartuko dira.
- Balio ekonomikoa: proiektuak negozioa sortzeko edo errentagarritasun ekonomikoa izateko duen potentziala
- Izaera berritzailea: proiektua Erandion aurretik egin ez dela kontuan hartuko da
- Bideragarritasuna: proiektua oinarri hartuta zerbitzu edo produktu berri bat sortzeko erraztasuna
- Kalitatea eta argitasuna: aurkezpenaren koherentzia eta argitasun-maila

Aurreko irizpide bakoitzak 0 eta 2 arteko puntuazioa jasoko du.

### SARIAK ETA AMAIERA-EKITALDIA

3 sari emango dira:

#### 1. kategoria: 16 eta 18 urte bitarteko gazteak

Aurreko puntuan aipatutako irizpideen arabera baloratutako proiekturik onenari 500 euroko saria emango zaio.

#### 2. kategoria: 19 eta 28 urte bitarteko gazteak

Aurreko puntuan aipatutako irizpideen arabera baloratutako proiekturik onenari 1.000 euroko saria emango zaio.

#### 3. kategoria: Aurkezpen onenaren saria.

Amiera-ekitaldian, parte-hartzaileek beren proiektua aurkeztu beharko dute. 500 euroko saria emango zaio PechaKucha 20x20 formatuan egindako aurkezpen eta azalpen onenari (20 segundoko 20 diapositibaz osatutako aurkezpena).

Erandioko Udalak emango dizkie sariak irabazleei, Behargintzaren bitartez. Sari-banaketa amaiera-ekitaldian egingo da.

Zalantza edo iradokizunik izanez gero, jarri harremanetan gurekin helbide elektronikoko honen bidez: [udalgaztediplana@erandio.eus](mailto:udalgaztediplana@erandio.eus)